JANGELA
SOLIDARIOA

Ángel Olaran International Board Led Organization (AOIBLO)



2025 TXOSTENA



Aurkibidea

01 — Sarrera

02 — Egoera humanitarioa


03 — *Jangela* 2025ean

04 — Informazio ekonomikoa

05 — Inpaktua eta erronkak

06 — Etiopian gehiago

07 — Agurra



Sarrera

2004an hasi zenetik, *Jangela Solidarioak* babes, autonomia eta berreraikuntza komunitarioko prozesuetan lagundu du Wukron, kalteberatasun handiko testuinguruan dauden haurren laguntza integralean zentratuz.

Txosten honek 2025ean Tigray eskualdeko Wukro eta Kilte-Awulaelon garatutako jarduera nagusiak biltzen ditu, oraindik ere gatazkaren ondorioek, ezegonkortasunak eta biztanleriaren bizi-baldintzen narriadurak markatutako testuinguru batean.

Dokumentuan, eremuko egoera humanitarioa eta umezurtz eta kalteberatasun-egoeran dauden haurrei arreta berezia emateko egindako lana aurkezten dira, baita babes- eta laguntza-premia handiagoak dituzten familiei zuzendutako beste ekintza batzuk ere. Bertan, ikuspegi integrala- ekonomia, osasuna, hezkuntza, ardatz hartzen dituena- azaltzen da.

Egoera humanitarioa

1. Testuinguru politikoaren azterketa: Tigrayko gatazka berrabiaraztea eta Wukroko biztanleentzako arriskuak

Tigrayren egoera politikoa ulertzea bereziki zaila da, gero eta ezegonkortasun handiagoa eta gatazka armatuak berriz hasi direlako.

2026ko irailaz geroztik, Etiopiako armada eta Tigrayko Herri Askapenerako Fronteari (TPLF) lotutako indarrak berriro borrokan ari dira, lurreko borrokekin, aireko erasoekin eta drone bidezko erasoekin. Egoera aldakorra da, eta eskura dagoen informazioa mugatua; horregatik, zuhurtziaz jokatu behar da gatazkaren hedadura eta herritarrengan dituen ondorioak baloratzerako garaian.

Wukro eskualdeak, Etiopiako iparraldean kokatua, gerra suntsitzailea jasan zuen 2020tik 2022ra. Pretoriako Akordioak eskala handiko borrokak geldiarazi zituen, eta suspertze partziala ahalbidetu zuen. Hala ere, lurraldeen inguruko auziak konpontzeke geratu ziren, baita desplazatutako herritarren itzulera eta bakea sendotzeko beharrezkoak diren beste baldintza batzuk ere. Indarkeriaren gorakada berriaren aurrean, Nazio Batuek negoziazioei berriro ekiteko eskatu dute, akordio horren esparruan.

Egungo egoeran, aliantza aldakorrak eta zatiketa politikoak dira nagusi. TPLFk Gobernu federalaren aurkako koalizio bat iragarri du beste mugimendu batzuekin batera; besteak beste, aurreko gerran kontrako aldean borrokatu zen Fano mugimenduarekin.

Hala ere, aliantza horrek barne-kontraesan sakonak ditu, bai lurraldeen inguruan, bai ideologiari dagokionez. Gainera, bi indarrek atzerriko potentzien laguntza dute; besteak beste, Eritrearena, itxuraz aldez aldatu baita. Ondorioz, eskualdeko gatazka gisa hasi zena nazioarteko interesak tartean dituen gerra moduan azaltzen da dagoeneko.

Herritarrak berriro behartuta daude beren bizilekuak uztera, eta zailtasunak dituzte oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko. Komunikazioen etenek, errepideen itxierek eta hegaldien eteteak mugikortasuna zailtzen dute. Gerraren ondorioz ehunka zauritu erregistratu dira, eta Nazio Batuek ohartarazi dute zibilak, adingabeak barne, indarrez errekrutatzen ari direla.

Wukrori dagokionez, kontsultatutako iturriek ez dute aukerarik ematen azkenaldian borrokarik izan denik edo bertako ospitalearen jarduera eten denik baieztatzeko. Hala ere, eskualdeko egoerak okerrera egiteak arriskuan jartzen ditu hornidura, pazienteak beste osasun-zentro batzuetara bideratzeko aukera eta hezkuntzaren jarraitutasuna. Tentsio eta ziurgabetasun egoera honetan, Tigrayren suspertzeak hauskorra izaten jarraitzen du, eta bertako herritarrak, bereziki haurrak, babestea lehentasuna da oraindik ere.

Testuinguru bereziki konplexua izan arren, *Jangela Solidarioak* premiarik larrienei erantzuten jarraitzen du, eta zonaldearekiko konpromisoari eusten dio.

2. Nutrizio-larrialdia eta osasun-krisiak Wukron eta Kilte-Awulaelon

Wukron eta Kilte-Awulaelo inguruan dagoen desnutrizioa ezin da fenomeno isolatu gisa ulertu. Hiru urtez hezkuntza-sistemak jasandako kolapsoaren, ekoizpen-baliabideen suntsiketa sistematikoaren eta behin eta berriz izandako lehorteen ondorio metatu eta suntsitzaileen emaitza da.

Komunitateak egoera zailei aurre egiteko duen gaitasuna agortu egin da, eta gizarte-babeseko mekanismoek ez dute lortu herritarren beharrei erantzutea, egiturazko krisi ekonomikoaren aurrean.

2025aren erdialdean Tigrayko lau barrutitan egindako detekzio-kanpaina batean, aztertutako haurren % 19,8 inguruk desnutrizio akutua zutela ikusi zen; hau da, gutxi gorabehera bost haurretik batek.

Tigray osoan, 2025ean 47.622 sarrera erregistratu ziren desnutrizio akutu larriagatiko tratamendu-programetan (larriena), 2024an baino % 40 gehiago. Igoera nabarmen horrek agerian uzten du, detektatzeko ahaleginak egin arren, krisia areagotzen ari dela.

Erantzunak detekzio goiztiarra eta tratamendua uztartu behar ditu familiek elikadura egokia, ur segurua eta osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera hobetzeko neurriekin.

3. Generoaren inpaktu bereizgarria eta sexu-indarkeria

Gerrak eta pobreziak ez diete haur guztiei berdin eragiten. Neskek eta neska nerabeek sexu-indarkeria, ezkontza goiztiarra, eskola uztea eta esplotazioa jasateko arrisku handiagoa dute.

Familia batek seme-alaba guztien hezkuntzari eutsi ezin dionean, askotan neskek hartzen dituzte beren gain etxeko lanak eta zaintza-lanak.

Neska nerabeek, gainera, zailtasun bereziak dituzte hilekoa kudeatzeko, higiene-produktuak, ura, komun seguruak edo pribatutasuna falta direnean. Gabezia horiek eskolara ez joatea, lotsa eta isolamendua eragin ditzakete.

Joan-etorrietan edo eskolarako bidean indarkeria jasateko beldurrak ere haien mugikortasuna mugatzen du.

Gerrak eragindako heriotzen, desagertzeen, banantzeen eta desplazamenduen ondorioz, emakumeek sostengatzen dituzten etxeen kopuruak ere gora egin du.

Amek, amonek, ahizpa eta arreba nagusiek eta emakume zaintzaileek neurriz kanpoko zama hartzen dute beren gain haurrak elikatzeko, babesteko eta haien ondoan egoteko arduran, askotan diru-sarrera nahikorik eta erakundeen babesik gabe. Etxe horietan, emakume zaintzaileen beharrei erantzutea haurrak babesteko modu zuzena ere bada.

Gerraren eragina izugarria da. Nazio Batuen Etiopiako Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Adituen Batzordearen arabera, 2020ko azarotik 2023ko uztailera bitartean, sexu-indarkeriatik bizirik atera ziren 10.000 pertsonak baino gehiagok —gehienak emakumeak eta neskak— arreta jaso zuten eskualdeko zazpi zentro espezializatutan.

Jangela 2025ean

Aurrekariak

Kokapen geografikoa

Programa Tigray eskualdean garatzen da, Etiopiako iparraldeko muturrean dagoen eskualde-estatuan. Ingurumenaren degradazio handiak eta azken gatazken ondorioek markatzen dute bertako egoera. Jarduerak ekialdeko eremuko bi woredatan —barrutitan— gauzatzen dira:

- **Wukro**: 63.635 biztanle inguru (17.198 etxe).
- **Kilte-Awulaelo**: 104.079 biztanle inguru (23.117 etxe).

Datu demografiko bereziki esanguratsua da etxeen % 70ean emakumeak direla familia-buru. Biztanleria osoaren % 52,35 emakumeak dira, eta % 47,65 gizonak.

Ángel Olaran International Board led Organization (AOIBLO)-en bisioa eta misioa

Ángel Olaranen erakundeak pobreziak eta gatazkek, besteak beste, kaltetutako komunitateen duintasuna berreskuratzea eta laguntza integrala eskaintzea du helburu. Bere esku-hartze ereduak honako hauek uztartzen ditu:

- **Zuzeneko finantza-laguntza.**
- **Gizarte-zerbitzu integratuak.**
- **Epe luzerako ahalduntze- eta erresilientzia-ekimenak.**
- **Oinarrizko beharrei erantzuna.**



Haur umezurtz eta zaurgarriak dira lehentasunezko arreta jasotzen dutenak.

Biztanleria onuraduna eta helburu estrategikoak

Populazioa

Programak **380 haur** umezurtz eta zaurgarrietara bideratu ditu bere ahaleginak, honela banatuta:

Programa	Neskak	Mutilak	Guztira
Wukro	116	104	230
Kilte- Awulaelo	78	72	150
Guztira	194	176	380

Helburu espezifikoak

- **Kalteberatasun handiko haurrei laguntzea: garapen integrala bermatzea hezkuntzaren, osasunaren eta laguntza emozionalaren bidez.**
- **Kaleko haurrei laguntza ematea: babesa, hezkuntza eta errehabilitazioa ematea, gizarteratzeko.**
- **Garapen iraunkorraren sustapena: ingurumenaren kontserbaziora eta hazkunde ekonomikora bideratutako proiektu komunitarioei ekitea.**



Esku-hartze integraleko programa: bizitzak transformatzen etorkizuna bermatzen

Segurtasun ekonomikoa eta finantza- laguntza

Hileko esleipenetan gorakada historikoa

LEHEN

810 Birr
Umezurtzak (etxe propioa)

190 Birr
Umezurtzak (alokairuko etxea)

GAUR EGUN

1,500 Birr
Umezurtzak (etxe propioa)

1,900 Birr
Umezurtzak (alokairuko etxea)

1,900 Birr: seme-alaba bateko familia batentzako hileko aurrekontua



- **1,100 Birr:** Elikagaiak
- **600 Birr:** Alokairua/ Zerbitzuak
- **100 Birr:** Higienea
- **100 Birr:** Gastu medikoak



Komunitatean bizitza babesten. Laguntza ekonomikoak aukera ematen du haurrak beren ingurukoen baldintza duinetan eta antzekoetan hazteko.

Osasuna eta elikadura prebentiboa



Osasun prebentiboan eta Hezkuntzan lehentasuna

Gastu medikoen estaldura osoa eta higieneari eta GIB/HIESaren prebentzioari buruzko etengabeko prestakuntza.

Paziente kronikoentzako nutrizio-laguntza



Egunero litro erdi esne gaixotasun kronikoak edo GIBa duten haurrentzat.

Elikadura segurtasuna indartzea 2025



Larrialdi-paketeak banatu zaizkie 380 onuraduni.

Hezkuntza: Autosufizientziaren zutabea



Eskola materialen estaldura osoa



380 neska-mutilentzako koadernoen eta materialen banaketa eta 93 ikaslerentzako uniformeak.



Goi-mailako Hezkuntza eta Prestakuntza Teknikoa

500 Birr gehiago ikasle unibertsitarioentzako garraioa, materialak eta 1. eta 12. mailetarako konputazio-eskolak ordaintzeko.



Eskolaz kanpoko errefortzu akademikoa

Ingeleseko eta matematikako tutoretza-eskolak 5. mailatik 12. mailara bitartekoentzat erabilera anitzeko zentroan.

Laguntza psikosoziala eta trebetasunak



Harrema amak (Foster care)

8 harrera-amek 380 onuradun gainbegiratzen dituzte. Horietatik 44 haur daude harrera osoan.



Bizitzarako trebetasunak (Life Skills)

45 gazteri prestakuntza ematea, tresna psikosozialak emateko eta elkarbizitza baketsua sustatzeko.



Etxeko jarraipena

Gizarte-langileek hilean 4 bisitak egiten dituzte, errendimendu akademikoa eta ongizate emozionala ebaluatzeko.

_Jangela_ko esku- hartze eredua

_Jangela_ren helburua da duintasuna berrezartzea eta laguntza holistikoa ematea besteak beste pobreziak eta gatazkak eragindako komunitateei.

1. Zuzeneko finantza-laguntza
2. Epe luzeko ahalduntze eta erresilientzia ekimenak
3. Gizarte-zerbitzu integratuak
4. Olnarrizko beharren estaldura

Esku-hartzea osatzen duten jardueren infografia

Esku-hartze integralaren osagaiak

01 Finantza-laguntza eta segurtasun ekonomikoa

Ardatz honen helburua da onuradunek eguneroko oinarrizko beharrak —elikadura, etxebizitza eta higiene-produktuak, besteak beste — asetzeko aukera izatea, hilero dirulaguntza bat jasoz.

Laguntzen zenbatekoak handitzeko aurrerapauso nabarmenak eman diren arren, inflazioak oztopo handia izaten jarraitzen du. Munduko Bankuaren datuen arabera, inflazioa % 33,9ra iritsi zen 2022an, eta % 30,2ra 2023an, Tigrayko gatazkaren eta haren berehalako ondorioen eragin ekonomikoa handiena izan zen urteetan.

Ondoren inflazioa apaldu bazen ere, 2025ean prezioen maila orokorra 2020koa halako hiru zen, gutxi gorabehera.

Familien ekonomiek presio handia jasaten jarraitzen dute: 2026ko abuztuan, elikagaiak % 14,9 garestitu ziren aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta; etxebizitzari, urari, elektrizitateari eta bestelako erregaiei lotutako gastuak, berriz, % 13,7 igo ziren.

Kategoria	Aurreko kopurua	Egungo kopurua
Umerzurtzak (Etxe propioa)	810	1.500
Umezurtzak (Alokairuko etxea)	940	1.900
Unibertsitate ikasleak	250	500

- Kantitatea Birr-etan, Etiopiako txanpona



Gizarte-langileek eta harrera-amek dirulaguntzak behar bezala erabiltzen direla gainbegiratu dute, zaintzaileekin lankidetza estuan. Beren janaria prestatzeko gai ez diren eta heldurik gabe bizi diren haur txikienei eguneroko otorduak prestatzeko sukaldariak esleitu zaizkie.

Egungo esleipenaren banaketa (seme-alaba 1 duen familiarentzako adibidea):

- **Elikagaiak: 1.100 Birr.**
- **Alokairua/Zerbitzuak: 600 Birr.**
- **Higienea: 100 Birr.**
- **Gastu medikoak: 100 Birr.**
- **Alokairua guztira: 1.900 Birr.**

02 Osasuna eta elikadura

Programak prebentzio-osasuna lehenesten du sendatzearen gainetik, honako hauen bidez:

- **Higieneari eta GIB/HIESaren prebentzioari buruzko etengabeko heziketa.**
- **Mediku-gastu guztiak ordaintzea eta osasun-zentro espezializatuetara bideratzea.**
- **GIBarekin bizi diren pertsonentzako nutrizio-laguntza: gaixotasun kronikoak edo GIBa duten haurrei egunero litro erdi esne ematea (edo, halakorik ezean, esne-hautsa).**

03 Hezkuntza zerbitzuak

Hezkuntza norbere burujabetzaren oinarria dela aintzat hartuta, proiektuak honako jarduera hauek sustatu ditu:

- **Eskola-materiala eta uniformeak: 380 haurrei koadernoak, boligrafoak eta arkatzak banatu zaizkie, eta 93 ikasleri eskola-jantziak eman zaizkie.**
- **Eskola-kuotak ordaintzea: programak 20 haurren matrikula ordaindu du haur-hezkuntzako ikastetxe pribatuetan, baita gainerako haurren eskolako izen-emate kuota ere.**
- **Goi-mailako hezkuntza: herrialdeko unibertsitateetan ikasten ari diren 5 umezurtzi laguntza eman zaie, garraioa, mantak, maindireak, ikasmateriala eta bestelako beharrak ordaintzeko. Horrez gain, programak hilean 500 birreko dirulaguntza eman dio bakoitzari, hezkuntzarekin lotutako gastu osagarrietarako.**
- **Eskola-errefortzua: ingeleseko eta matematikako laguntza-eskolak eskaini dira erakundearen erabilera anitzeko zentroan, 5. mailatik 12. mailara bitarteko ikasleentzat. Horrez gain, udako eskolak antolatu dira lehen hezkuntzako ikasleentzat, eta oinarrizko informatika-prestakuntza 11. eta 12. mailetakoentzat.**

04 Euskarri psikosoziala eta jarraipena

Haurrek dituzten arazo psikosozialak (konfiantza-galera, haserrea, erru-sentimendua, beldurra eta abar) arintzeko, programak laguntza psikosozialeko hainbat jarduera egin ditu.

- **Harrera bidezko zaintza (*Foster Care*): 8 harrera-amek hurbileko seniderik ez duten 380 onuradunen zaintza eta jarraipena egiten dute.**
- **Etxeko eta eskolako bisitak: gizarte-langileek hilean lau egun eskaintzen dizkiote ongizate orokorra, eskola-errendimendua eta familia-harremanak ebaluatzeari.**
- **Aholkularitza: arreta espezifikoa eskaintzen zaie jokabide-arazoak dituzten 25 umezurtzi eta GIB/HIESa duten 12 pertsonari.**



Laguntza psikosozialak, etxeetara eta eskoletara aldizka egindako bisitek eta familiei eskainitako orientazioak familia-harremanak, gizarteratzea eta ongizate emozionala indartu dituzte.

05 Bizitzarako trebetasunei buruzko prestakuntza

Onuradunen garapen integrala bermatzeko programak egiten duen lanari jarraipena emanez, Ángel Olaranen erakundeak bizitzarako trebetasunei buruzko prestakuntza eskaini die **45 onuradun**i. Gizarte-langileek eman zuten prestakuntza, eta honako helburu hauek zituen:



- **Parte-hartzaileei arazo psikosozialak arintzeko oinarrizko trebetasunak eskaintzea.**
- **Parte-hartzaileei komunitatean bakean bizitzeko trebetasunak garatzen laguntzea.**

06 Nutrizio-laguntza gehigarria




2025ean elikagai osagarriak eta higiene-materialak banatu zaizkie programako **380 haur**rei.

Bakoitzak 25 kg gari irin, 3 litro olio, bi gorputzeko xaboi pieza, arroparako bi xaboi-pieza eta etxea garbitzeko kilo bat garbikari jaso zituen .



Informazio ekonomikoa

2025ean 40.000 €bidali ziren transferentzia bakar batean.



LABORAL kutxa

Operaciones de Extranjero / *Atzerri-Eragiketak*

LIQUIDACION TRANSF. EN DIVISA / DIBISA-TRANSF. LIKIDAZIOA

REFERENCIA/*ERREFERENTZIA*	SU REFERENCIA / *ZURE ERREFERENTZIA*	IMPORTE
TB80258008	JANGELA SOLIDARIA 2025	EUR 40.000,00

ORDENANTE / *AGINTZAILE*
MEDICUS MUNDI

BENEFICIARIO / *ONURADUNA*
ANGEL OLARAN
CTA.013201207243200
ENTIDAD:AWASH BANK S.C

COMISIONES Y GTOS.:COMPARTIDOS(SHA)

Adeudo de la operacion de referencia.

EUR	40.000,00	EUR	40.000,00
Gtos. swift/correo		EUR	6,01


Sr/a: MEDICUS MUNDI

OFICINA / *SUKURTSALA*	FECHA / *DATA*	C.C.C. / *B.K.K.*	VALOR / *BALIOA*
DONOSTIA-AVENIDA	27-10-2025	3035 0060 41 0600600006	27-10-2025

1 1 1 20016 U 060 01 0600600006 Cód.OV:521

2025ean bidali dira
40.000 €

1 € = 171,56 Birr



AwashBank

Swift Code: AWINETAA

Inward Customer Payment
Credit Advice

Branch: WUKRO BRANCH
Date: 28/10/25

Customer Name	Received from
ANGEL OLARAN ESNAL	COMMERZBANK AG FRANKFURT
Receiver's correspondent	By order of
	MEDICUS MUNDI PS DE SERAPIO MUJIKA 33 BAJO ES/DONOSTIA

References:
Our Ref Number: AB1000IT2663025
Originator's reference: FAAN530004790900

Value Date: 27/10/25
With reference to the above Inward Customer Payment — for EUR 39,975,00 @ a rate of 171,5627, your account: 013201207243200 has been credited for the following amount
Master amount credited: ETB 6.858.218,93

Purpose of payment: /ROC/TB80258008///URI/JANGELA SOLIDARIA 2025
CORESPONDENT BANK CHARGE 25.00 EUR
If you have any queries regarding the above transactions, please contact us as soon as possible quoting our transaction reference.

Authorized Signature

FINAL

AwashBank

Tel: + 251-115-57-0111 | Fax: 251-11557 01 06| E-mail: info@awashbank.com
Website: www.awashbank.com | P.O. Box 12638 |Addis Ababa, Ethiopia

Gastuaren xehatzea Birrs-etan (Etiopiako txanpona)

380 haur umezurtz eta zaurgarrien nutrizioa eta elikadura laguntza ekonomikoa	
Deskribapena	**Gastu erreala**
Hilabeteko janari-ordainketa	1.658.500,00
Elikagai gehigarriak (esnea, arrautzak)	112.520,00
Elikagai laguntza gehigarria (gari-irina, olioa eta saneamendu materialak)	1.525.670,00
Azpitotala	**3.296.790,00**
Osasun eta saneamendu zerbitzuetara sarbidea	
Deskribapena	**Gastu erreala**
Laguntza medikoa eta goi mailako ospitaleetara bideratzea	216.564,15
Gorputz-xaboia eta olioa	152.050,00
Azpitotala	**368.614,15**
Ostatua eta oinarrizko zerbitzuak eskaintzea	
Deskribapena	**Gastu erreala**
Etxebizitza alokairua	491.200,00
Ura eta elektrizitatea (fakturak)	9.755,82
Oinetakoak eta arropa	1.140.000,00
Azpitotala	**1.640.955,82**
Helburu anitzeko zentroa / dinamizatzaileak / pentsioa	
Helburu anitzeko zentroaren alokairua eta hornidura	90.000,00
Dinamizatzaileen soldata	157.606,00
Pentsio ekarpena (%15)	19.150,20
Azpitotala	**266.756,10**
380 haur umezurtz eta zaurgarrientzako oinarrizko hezkuntza-laguntza	
Deskribapena	**Gastu erreala**
Koadernoak	162.368,53
Eskolako uniformeen eskaintza	90.000,00
Azpitotala	**252.368,53**
Lanbide prestakuntzaren eskaintza eta eskolako kuotak estaltzea	
Eskola pribatuetan ikasten duten umeen matrikula	16.650,00
Eskola Matrikulazio Kuota	30.800,00
Azpitotala	**47.450,00**
Unibertsitateko ikasleentzako laguntza	
Unibertsitateko ikasleentzako hezkuntza-materiala	11.630,00
Unibertsitateko ikasleentzako garraioa	1.847,00
Unibertsitate ikasle berrientzako oheko arropak	12.000,00
Azpitotala	**25.477,00**
Gizarte langileen, amak/zaintzaileen eta sukaldeko langileen soldata	
Ama/zaintzaileak eta gizarte langileak	798.167,93
Sukaldeko langileak	29.680,00
Pentsio ekarpena (%15)	99.092,40
Azpitotala	**926.940,33**
Beste gastuak	
Erregaia eta lubrifikatzaileak	15.183,00
Mintegiak, tailerrak eta prestakuntzak	2.500,00
Bulegoko hornidura eta papergintza	12.330,00
Ordenagailu zentroa	2.000,00
Azpitotala	**32.013,00**
GASTUAK GUZTIRA	**6.857.364,93**

Inpaktua eta erronkak

Programak nabarmen lagundu du haurren eta haien familien bizi-baldintzak hobetzen. Aldizkako dirulaguntzen, nutrizio-laguntza osagarriaren, hezkuntza-zerbitzuen, osasun-arretaren eta gizarte-langileen etengabeko jarraipenaren bidez, zaurgarritasun-egoeran dauden haurren ongizate orokorra eta bizi-maila nabarmen hobetu ditu.

Inpaktu positiboak

- Bizi-baldintzen eta elikadura-segurtasunaren hobekuntza nabarmena.
- Nahi gabeko haurdunaldien kopurua zerora murriztea.
- Ikasteko motibazioa eta eskola-errendimendua hobetzea, laguntza-eskolei eta jarraipenari esker.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden taldeen erresilientzia eta gizarteratzea indartzea.

Identifikatutako erronkak

- Eskola uztea: haur batzuek ikasketak uzten dituzte lan egiteko, gerraosteko traumaren eta premia ekonomikoen ondorioz.
- Dirulaguntzen eskasia: laguntzen zenbatekoak handitu diren arren, eskualdeko inflazioak familien erosteko ahalmena murrizten du.
- Jokabide-arazoak: gurasoen zaintzarik ezarekin eta bizi-baldintza ezegonkorrekin lotutakoak.
- Jarduteko mugak: gizarte-langile eta harrera-ama batzuek zailtasunak dituzte beren jarraipen-ardurak osorik betetzeko.



Etiopian gehiago

Tigray eskualdean Jangela Solidaria proiektuaren bidez egiten duen lanaz gain, eta Somali eskualdeko emakumeen eskubideen egoera aintzat hartuta, medicusmundi Gipuzkoak Pastoralist Concern (PC) erakundea babesten du 2016az geroztik, emakumeen eta nesken eskubideak defendatzeko eta ura eskuratzeko aukerak hobetzeko proiektuetan.

Agintari publikoekin, tradizionalekin eta erlijiosoekin lankidetza estuan aritzen da, estrategia integratu baten bidez. Estrategia horrek larrialdiei erantzutea, birgaitzea, bizibideak garatzea, interesik gabeko mikrofinantzak, genero-berdintasuna eta epe luzeko garapena uztartzen ditu.
Jarduera-ildo nagusiak honako hauek dira:

01

Emakumeen genitalen mutilazioa (eskualdean % 98,5eko prebalentzia duena), ezkontza goiztiarrak eta behartuak eta bestelako indarkeria matxistak prebenitzea eta desagerraraztea.

02

Ur-puntuetarako sarbidea eta haien kudeaketa. Eskualdean, biztanleen % 47,4k baino ez du ur-iturri hobetuetarako sarbidea; herrialde osoan, berriz, % 69,5ek. Azpiegitura faltak eta behin eta berriz gertatzen diren lehorteek desberdintasun hori areagotzen dute.

03

Emakume helduen alfabetatzea eta neskei laguntzea, eskola uztearen tasa murrizteko eta ezkontza goiztiarrak prebenitzeko. 2019ko Demografia eta Osasun Inkestaren arabera, 15 eta 49 urte bitarteko emakumeen % 12k baino ez zekien irakurtzen eta idazten, eta % 72k ez zuen hezkuntza formalik jaso.

04

Lan-merkaturako sarbidea sustatzea: emakumeek gidatu, kudeatu eta osatutako nekazaritza- eta abeltzaintza-kooperatibak eratuz eta indartuz. Emakumeen aurrezki- eta kreditu-kooperatibei laguntzea, negozio txikiak abian jar ditzaten.

05

Uholdeek edo lehorteek behin eta berriz eragindako larrialdiei erantzutea.

06

Hilekoaren osasuna eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea hobetzea.

PASTORALIST CONCERN



Agurra

*Jangela*ko kide zaretenok duela hogei urte baino gehiagotik ezagutzen duzue proiektu hau. Wukroko eta Kilte-Awulaeloko haur belaunaldi baten bidelagun izan zarete, eta badakizue lan hau ez dela unean uneko larrialdi bati erantzutea soilik; egoera zailtzen denean ere hor jarraitzea eta laguntza-sare egonkorra eskaintzea esan nahi du.

Gaur egun, osasun-arretari esker, gaixotasunak, desgaitasunak edo nutrizio-arazoak garaiz antzeman eta artatu daitezke. Ostatuak eta harrerak ingurune segurua eskaintzen diete beren zaintzaz arduratu daitekeen heldurik ez duten adingabeei. Hezkuntza-laguntzak eskola-gastuak, materialak, uniformeak, laguntza-eskolak eta jarraipena hartzen ditu barne, baliabide faltak haurrak ikasketak uztera edo haur-lanean aritzera bultza ez ditzan. Laguntza psikosoziala ere ezinbestekoa da, haur askok galerak, desplazamenduak, beldurra eta ezegonkortasun-aldi luzeak bizi izan baitituzte.

2025ean, programak dirulaguntza, elikadura, osasun-arreta, hezkuntza, laguntza psikosoziala eta etxeetako zein eskoletako jarraipena eskaintzen jarraitu zuen.

Eguneroko errealitatearen parte diren arazoak ere identifikatu zituen: diru-sarrerak lortzeko ikasketak uzten dituzten adingabeak, hilabete osoan oinarrizko beharrak ase ezin dituzten familiak eta arropa edo oinetako egokirik ez duten haurrak.

Zuen etengabeko laguntzari esker, proiektua bi hamarkada baino gehiagoan aldatuz joan diren beharretara egokitu ahal izan da. Egungo testuinguruan, osasun-arreta, bizitzeko leku segurua, hezkuntza eta laguntza emozionala eskaintzen jarraitzeak gerraren ondorioek haurren bizitza betiko baldintzatzea saihesten laguntzen du.

Mediku-kontsulta bakoitza, amaitutako ikasturte bakoitza, etxe batera egindako bisita bakoitza eta entzuteko espazio bakoitza prozesu zabalago baten parte dira: Wukroko eta Kilte-Awulaeloko haurrek konfiantza berreskuratu, beren eskubideak baliatu eta aukera gehiago izango dituzten etorkizuna eraiki ahal izatea bermatzea. Hainbeste urtez konpromisoa partekatu ondoren, zuen gertutasunak babes egonkor eta baliotsua izaten jarraitzen du haien bizitzetan.

ESKERRIK ASKO HOR JARRAITZEAGATIK

